

GERTUKO KOMUNIKAZIOAREN ALDE, PAUSO BAT

Bidania-Goiazko Udalak, herritarrekin harreman eguneratua izateko asmoarekin, **herriko Whatsapp talde bat** sortu duela jakinarazten dizuegu.

Interes orokorra duen informazio, ohar, agenda eta emergentziak herritarrei modu zuzen eta azkarrean helaraztea da asmoa. Etkez etxeko buzoneoa orain arte bezala mantenduko da.



Herritarrek ere idazteko ahalmena izango duzue, beti ere, interes orokorra duten mezuak idatziz: oharrak, elkarten agendak, deialdiak, emergentziak eta abar...

Garrantzitsua jakinaraztea:

- Mezu guztiek Bidania-Goiazko eta herritarrentzako interes orokorra izan beharko dute.
- Ez da eztabaida talde bat, mezuak ez dira erantzun edo eskertu beharko.
- Errespetuz jardun beharko da beti, ezberdina errespetatuko duen herrigintzarako talde bat da.
- Udalean egin beharreko eskaera edo kexa guztiak, orain arte bezala egin beharko dira, Whatsapp talde honek ez du betebeharr legalik izango.

Norentzat: Herrian erroldatuta dagoen 18 urtetik gorako edozeinentzat.

Taldean nola sartu: Bakoitzak segidan dagoen dokumentua bete, zenbakia sartzeko baimena eman eta bertako puntua onartu beharko ditu. Eta noski, baimen orri hau udaleko idazkaritzan entregatu beharko du.

Nik,-k, NAN zenbakia dudanak, nire izenean dagoen telefono zenbakia Bidania-Goiazko Whatsapp talde honetan sartzeko baimena ematen dut.

Erabilpen egoki bat egingo dudala, arau guztiak ezagutzen ditudala eta arau hauek betetzen ez baditut taldetik kanporatua izan naitekeela onartzen dut.

Bidania-Goiatzen, 2.020korenan.

Sinadura

Oharrak: **Entregatzeko epea, 2020ko otsailaren 14a, udaletxeko idazkaritzan.** Norbaitek baimen orri gehiago beharko balitu, bertan eskatu ditzala.

Datuak Babesteko Oinarrizko Informazioa

Arduraduna: Bidania-Goiazko Udala. Xedea: eskatu diguzun zerbitzuak eskaintzea, informazio eskaerak erantzutea eta Dokumentuen sarrera-eta irteera-erregistroa kudeatzea eta kontrola egitea. Legitimazioa: DBEO: 6.1.c) Tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion legebete behar bat betetzeko behar den tratamendua. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua, eta Toki Entitateen Antolaketa, Jarduna eta Araubide Juridikoa arautzeko Erregelamendua onesten duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 151. artikulua eta hurrengoak. Hartzailak: Legez beharitutako lagapenak. Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzea, bai eta beste eskubide batzuk ere, informazio gehigarrian azalduta dagoen bezala. Informazio gehigarria: Datuen tratamenduei buruzko eta Datuak Babesteko Ordezkarari buruzko informazio gehigarria Udala webaren egoitza elektronikoan dago eskura <http://www.bidania-goiazko.eus>.